MIGUEL ANGEL HURTADO PEDROSO jaunak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**Z I U R T A T Z E N  D O T:**

2010eko ekinaren 23an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

7.- **ALMIKEKO BIDEA EGOKITZEKO OBRA KONTRATUA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.**

**Xedea**

Almikeko Bidea egokitzeko obra kontratua behin-behinekoz esleitzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2009ko garagarrilaren 1ean, Tokiko Gobernu Batzarrak, Almikeko Bidea egokitzeko proiektua eta administrazino baldintza zehatzen orria onartzea erabagi eban.

Bigarrena: Aitatutako kontratazino-prozesura hamar parte-hartzaile aurkeztu dira:

- Urre, S.A.
- Asfaltados Olarra, SA
- UTE Urvama SL – Basteguieta SL
- Vda. De Sainz, SA
- Construcciones Morga SL
- UTE Asaser SA -Grupo Ansareo AEB SL
- UTE Construcciones Eder SA – Bermeosolo SA
- Leandro Gómez SLU
- Jose Antonio Olabarri Construcciones SL
- UTE Asfaltos Uribe SA – Codesport SA

**Argudioak**

Bakarra: 2010eko bagilaren 9an emondako txosten teknikoaren arabera, hauxe izan da eskaintza bakotxak lortutako puntuazinoa:

**Erabagia**

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

| Eskaintzak | Hobekuntzak (obra gehiketak) 0-35 | Bestelako hobekuntzak 0-15 | Obra egiteko epea (4 hilabete) 0-30 | Obraren metodologia 0-20 | **Guztira** |
|---|---|---|---|---|---|
| Urre, S.A. | 35 | 9,5 | 10 | 12 | **66,5** |
| Asfaltados Olarra, SA | 18,5 | 4 | 28 | 10 | **60,5** |
| UTE Urvama SL – Basteguieta SL | 3,2 | 11,8 | 30 | 12 | **57** |
| Vda. De Sainz, SA | 5,7 | 2,3 | 10 | 10 | **28** |
| Construcciones Morga SL | 17,2 | 9,8 | 26 | 10 | **63** |
| UTE Asaser SA -Grupo Ansareo AEB SL | 6 | 15 | 30 | 12 | **63** |
| UTE Construcciones Eder SA – Bermeosolo SA | 9,4 | 3,6 | 20 | 10 | **43** |
| Leandro Gómez SLU | 16,6 | 10,8 | 24 | 12 | **63,4** |
| Jose Antonio Olabarri Construcciones SL | 10,9 | 10,6 | 20 | 10 | **51,5** |
| UTE Asfaltos Uribe SA – codesport SA | 16,8 | 2 | 25 | 10 | **53,8** |

LEHENENGOA: Almikeko Bidea egokitzeko obra kontratua behin-behinekoz URRE, SA enpreseari esleitzea, 562.596,70 eurotan (BEZ barik).

BIGARRENA: Urre, SAri jakinarazotea behin-behineko esleipenaren iragarkia kontratugileen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 15 eguneko epean, konpultsau barik daukazan agiriak (halan izatekotan) konpultsau beharko dauzala eta behin betiko bermea jarri beharko dauela, eta, holan egin ezean, behin-behineko esleipena bertan behera geratuko dala.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deutsut, behin betiko onespenaren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2010eko ekainaren 25ean.

ONETSIA
ALKATEA